


BIOANIZTASUNA NATURA ETA NATUR BALIABIDEEN DEFENTSA



Obikani

EGOERA

Bizitza da handiena: galtzea litzake galtzea dena. Bioaniztasuna –inguruzten gaituzten ekosistemak, espezieak eta geneak– gure bizitza-asegurua da: janaria, ur edangarria eta aire garbia, babesak eta sendagaiak ematen dizkigu, hondamendi naturalak, izurriteak eta gaixotasunak arintzen ditu eta klima erregulatzen lagundu. Bioaniztasuna gure natur kapitalka da eta ekonomiaren oinarri diren zerbitzu ekosistemikoak ematen dizkigu. Bioaniztasunaren galera, klima aldaketarekin batera, mundu-mailako ingurumen-mehatxu nagusia da eta gizakiaren etorkizuna kolokan jartzen du.

Aurreko ataletan zehaztutako hainbat neurri eragin zuzena dute bioaniztasuna eta natur baliabideen defentsan, zeharkakotasuna baita arlo honen ezaugarri nagusia, askotan beste arlo batzuetan hartzen diren (edo hartzen ez diren) neurri eta erabakiek eragin

zuzena dutelako. Baina horretaz gain neurri zehatzak behar dira arlo honetan ere. Arestian aipatutako eredu kapitalistaren arimak, alegia, mugagabeko hazkundeak, eragin zuzena du ere bioaniztasunaren galeran eta natur baliabideen xahuketan. Era horretan presioak etengabe jarraitzen dute eta handituz doaz, batez ere: lurzoruen erabilera aldaketak; bioaniztasunaren eta bere osagaien gehiegizko ustiaketa; espezie exotiko inbaditzaileen hedatzea; gutxitzen ez diren kutsadura eta klima aldaketa. Ezinbestekoa da beraz hainbat jardueren kontrola eta funtsezkoa administrazio publikoak kontrol horretan zorrotasunez aritzea.

Azkenik aipatu behar dugu baliabideen kudeaketan askotan interes orokorraren gaintik, interes pribatuaren interesak gaintzen direla. Beraz, arlo honetan ere, kontrol publikoa, alegia interes orokorra helburu nagusi bezala, beharrezkotzat jotzen dugu.

HELBURUA

Bioaniztasunaren galera 2020rako etetea, Europar Batasunak onartutako Biodibertsitateari Buruzko Estrategian, bere osotasunean aplikatuz. Ura, aire eta lurzoruen kutsadura ezabatu, baliabide naturalak, ondare publiko gisa defendatzera enfokatu, pribatizazio arriskuetatik libratuaz eta baita ustiaketa basati eta sostengaezinetik ere, eta era berean, jarraipen berezia eginez jarduera kutsatzaileei.

1

Ingurumena babesteko 3/1998 lege orokorra bere osotasunean berraztertu. Helburu nagusi hauekin:

Ingurumen Eraginen Ebaluazioaren eta Ingurumen Baimen Bateratuen prozedurak eguneratu eta herritarren parte hartzea bermatzen duten foroak ezarri jarduera horiek kontrolatzerako orduan.

Lurzoruari baliabide izaera onartu, era horretan hirigintza eta Lurralde antolaketarako legeetan beharrezkoak diren aldaketak eginez, lur-zorua baliabide bezala babesteko.

Hondakinen arloan ekonomia zirkularraren irizpideak ezarri. Legealdi bukaeran gaikako bilketan %80ko kopurua lortu eta birziklapen maila %70koa izateko.

Uraren kudeaketa publikoa legez ezarri. Ur hornidura eta saneamentu zerbitzuak %100ean publikoak izatea bermatu eta gardentasuna eta herritarren parte hartzea izatea ur politiken ardatz.

2

Natura babesteko 16/1994 legea indargabetu eta Natur Ondarea eta Bioaniztasuna kontserbatzeko lege berria egin. Helburu nagusi hauekin:

Natura 2000 Sarea eta Europar Arteztarauak edo Azpiegitura Berde/Urdina bezalako kontzeptuak eta dinamikak integratuz.

Natura zaintzan Politika koordinatu bat egiteko eskumenak dituzten administrazio ezberdinak zuzendu eta koordinatuko duen egitura berri bat sortu.

Mehatxupean dauden espezieen katalogoa berraztertzeke irizpideak ezarri eta epe zehatzak eta epe horiek betetzeko baliabide ekonomiko nahikoak bermatu.

Espezie inbaditzaileen katalogoa berraztertzeke irizpideak ezarri eta epe zehatzak eta epe horiek betetzeko baliabide ekonomiko nahikoak bermatu.

3

Kutsadura atmosferikoa neurtzeko sarea berraztertu, eskualdeko plan berriak egin eta neurri zuzentzaileak aurrera eramateko konpromiso ekonomikoa hartu, h erritarren parte hartzea sustatzeko foro zehatzekin.

4

Ur saneamendurako beharrezkoak diren obra guztiak egiteko konpromisoarekin (kolektoreak eta araztegiak) 4 urteko plana onartu dagokien diru partidak bermatuz. Azpiegituren kudeaketa publikoa bermatu.

5

Basoak modu sostengarrian kudeatzeko plangintza diseinatu. Basoa balorizatu eta bere ustiaketa sostengarrria bilatzen duen ekintza plana ezarri.